

solasean



- Izen-abizenak:** Orlando Arreitunandia Arinas
Jaioterria: Mutrikun jaioa, Gipuzkoako kostaldeko lehen herria
Bizitokia: Bastida
Lanbidea: Enologoa

¿Cuál ha sido tu experiencia con el euskera?

El Euskera es mi lengua paterna. Siempre ha sido mi lengua para relacionarme con mi familia amigos etc. A día de hoy sigue siendo la lengua que utilizamos en casa y en menor medida en la calle y el trabajo, pero siempre procuro hablar en euskera con la gente que me rodea y buscar una excusa para que otros la utilicen también. El euskera me acercó al mundo del bertsolarismo; primero dentro de la asignatura de euskera en el instituto y luego como afición en la bertoeskola de Mutriku, en la cual tuve la suerte de conocer a grandes bertsolaris como Jon Azpillaga Jon Mugartegi, Narbaiza, Okelar...

En la vida hay que tomar decisiones y una de ellas me trajo a vivir a Labastida para cursar los estudios de enología en Laguardía. Una vez asentado aquí el gusanillo del bertsolarismo seguía dando guerra y en el 2004 con la excusa del Araba Euskaraz que organizaba Bastida Ikastola, salimos a cantar

coplas improvisadas por Labastida; para ello conté con la compañía de Oihane Perea e Iñaki Viñaspre, dos grandes bertsolaris que me convencieron para participar en el campeonato de bertsolaris de Araba.

Txandrio. ¿Cuándo surgió?

En 2009 a raíz de una cena con bertsolaris en Oyón y el trabajo de Arantxa Sobrino, nos juntamos en el euskaltgi de Oyón para formar un grupo para cantar en el campeonato intercuadrillas de Araba y así debutamos en febrero de 2010 en Zaldundo Endika, Edurne y yo, y desde entonces hasta hoy, con los altibajos de toda asociación, está haciendo camino Txandrio en una labor de darle al euskera un sitio en las calles de Rioja Alavesa. El objetivo siempre ha sido el mismo: impulsar y acercar el euskera entre nuestros vecinos y en ello seguimos con nuestros poteos, participando en diferentes campeonatos, llegando a ser finalistas en el intercuadrillas que nos vio nacer.

Txandrioren helburua beti bera izan da: gure herritarren artean euskara bultzatzea eta hurbiltzea, eta horretan jarraitzen dugu gure poteoekin, txapelketetan parte hartuz... eta jaiotzen ikusi gintuen kuadrillarteko finalistak izatera iritsi ginen.

Cuéntanos el proyecto que llevas a cabo en Labastida con los/as jóvenes.

La motivación anteriormente señalada nos ha llevado a crear una sucursal de Txandrio en Labastida, una bertoeskola que a día de hoy cuenta con 10 alumno/as, los cuales juegan con el euskera mientras lo practican, y quién sabe si el día de mañana igual los vemos con una txapela (¿por qué no?), pero siempre con el objetivo de darle al euskera su valor, que deje de ser una lengua de uso exclusivo en la enseñanza y sea una lengua para relacionarnos en la calle en casa..

Euskarari balioa eman nahiak Bastidan Txandrioren sukurtsal bat sortzera eraman gaitu, gaur egun 10 ikasle dituen bertoeskola; euskara praktikatzen duten bitartean euskararekin jolastan direnak, eta auskalo biharko egunean agian txapel batekin ikusiko ditugun, zergatik ez!

¿De cuando viniste a Rioja Alavesa has notado algún cambio en la situación del euskera?

El uso del euskera en los años que llevo en Labastida va en aumento, pero tampoco es como para echar las campanas al vuelo. Sigue siendo un uso en corros pequeños y en su mayoría entre personas que hemos venido de fuera. Es difícil cambiar las costumbres, pero hay que trabajar en ello. Los/as vecinos/as de Rioja Alavesa menores

de 40 años en su mayoría saben euskera, hay que motivarles para que lo utilicen y esa es una de las labores de Txandrio bertsos eskola.

La situaciones que has explicado, ¿se podrían mejorar? ¿Cómo?

Tenemos que fomentar la trasmisión del euskera los padres y madres que sabemos euskera, lo tenemos que utilizar y que los que vienen por detrás vean que también vale para el día a día, es la mejor forma de que el euskera sea parte de nuestras vidas.

Euskara dakigun gurasook euskararen transmisioa sustatu behar dugu. Euskara erabili egin behar dugu, eta atzetik datozenek egunerokotasunerako ere balio duela ikustea da euskara gure bizitzaren parte izateko modurik onena.

Hay mucha gente que no se anima a aprender euskera, porque son muchas las creencias que hay en cuanto a su aprendizaje: estudiar euskera es caro, es difícil, no sirve para nada... ¿qué les dirías?

Hoy en día son muchas las ayudas para aprender euskera y diferentes la motivaciones, pero sobre todo es necesario que quienes lo saben lo utilicen por el bien del euskera y porque es la mejor forma de ayudar a quien lo está aprendiendo.

Lagun batzuei galdetu diegu Mantible aldizkariatz, baita aldizkariaren zein atal duten gustukoena eta zergatik labur esateko eskatu ere. Horra hor aipatutakoak.

Hemos preguntado a algunos amigos/as por Mantible, y, además, le hemos pedido que nos digan cuál es el apartado que más les agrada y por qué. A continuación lo que nos han mencionado.



LUCIO

Solasean atala dut gogoko. Idatzitako elkarrizketetan xehetasun interesgarriak irakurtzeko aukera dago; errepasotxo egin, geratu... beti dago zerbait erakartzen nauena.

Me gusta el apartado de *Solasean*, porque una entrevista escrita es muy interesante para leer los matices mejor que escuchada y es posible releerlo, ya que suele ser de interés.



JAIONE

Elkarrizketaren atala atsegin dut oso. Arabako Errioxako jende askoren iritziak-eta ezagutzeko aukera paregabea. Ez dugu-eta beti elkar ezagutzeko edota elkarrekin solasean aritzeko paradarik.

Leer las entrevistas de Mantible es una buena manera de conocer la opinión de muchos/as vecinos/as de Rioja Alavesa que a veces no podemos conocer en persona.



AINARA

Mantible aldizkaritxoaren atalik gustukoena jendeari eginiko galderatxoena izan da. Gogoan dut jendeak Euskal Herriko parajerik politena aukeratu zueneko. Batek Donostiako Eduardo Txillidak egindako Haizearen orraziaren eraikina aukeratu zuen, eta neuk ere horixe aukeratu nukeen, asko gustatzen baitzait. Donostiara joaten naizen bakoitzean eskultura ikusten saiatzen naiz. Egia esan, askotan joaten naiz, Donostia asko gustatzen zait eta. Hiria, oro har, maite dut. Txikia nintzenetik joaten naiz; izan ere, aita bertan jaio zen. Orain alabekin joatea gustuko dut. Haiei asko gustatzen zaie, batez ere Igeldoko parkera joatea. Asko disfrutatzen dute.



ANNE

Atal bat aukeratu beharko banu, jendeari eginiko inkestena izango litzateke, ezagunen iritziak irakurtzea polita baita. Eta eginiko guztien artean bat aukeratzekotan, *Zer da zuretzat euskara?* aukeratu nuke; izan ere, neu ere euskara dugun altxor handiena delakoan nago, maite eta zaindu behar duguna. Euskararekin ikasi, maitatu eta hazi egiten gara. Niretzat euskara oso garrantzitsua da.



ITXIAR

Normalean, *Berberana* jasotzen dudanean, Mantible begiratzen dut ea inkestaren argazkietan ezagunen bat agertzen den. Hor egiten diren galderak entretenigarriak eta bitxiak iruditzen zaizkit. Berezi gogoratzen dudana da Euskal Herriko eraikin politenarena. Haietariko batzuk ez nituen ezagutzen, eta, hala, ezagutu ahal izan nituen. Agian, noizbat joango naiz ikustera.

Normalmente, cuando cojo *Berberana* miro el apartado de Mantible para ver si hay algún conocido/a en las fotos que aparecen. Las preguntas de la encuesta me parecen entretenidas y curiosas. Una de las que más me llamó la atención fue la del edificio o construcción de Euskal Herria más bonito. Algunos no los conocía y me sirvió para conocerlos.



LUCÍA

Mantiblen aspaldian ez dagoen atal bat gustatzen zitzaidan niri; hauxe da: Arabako Errioxan egin daitezkeen txangoak, parkeak, eraikinak, eta abar; esaterako, Oiongo urputzua eta Ekorako baseliza. Askotan, urrun joaten gara lekuren bat ezagutzera, eta hurbil ditugun leku paregabeen ez diegu ematen merezi duten garrantzia.

Aunque hace tiempo que en Mantible no aparece este apartado, a mí me gustaban mucho los artículos sobre paseos o lugares de Rioja Alavesa como, por ejemplo, “El pozo de agua” de Oyón o la ermita de Yécora. A veces vamos muy lejos a conocer otros lugares y los que tenemos más cerca no los apreciamos.



MIREIA

Mantible aldizkaritik gehien gustatzen zaidan atala ikasleei egindako galdera da. Euskal Herriko eraikinei buruzko galdera gogoratzen dut, leku berriak ezagutzen lagundu zidalako. Aldizkarian ikusi eta gero, Butroeko gaztelura joan nintzen, eta izugarri polita iruditu zitzaidan. Leku zoragarriak dauzkagu gure inguruan.

La sección que más me gusta de la revista Mantible es la pregunta al alumnado. Recuerdo la pregunta sobre los edificios que más gustan del País Vasco. Fue muy interesante, porque me ayudó a conocer nuevos lugares. Después de verlo en la revista, visité el castillo de Butrón y me pareció muy bonito. Tenemos lugares maravillosos a nuestro alrededor.



NAIARA

Aspalditik naiz Mantible aldizkariaren irakurlea eta, egia esan, azken urteotan, Euskal Herriko pertsonaia interesgarrien biografiatxoan atalaren falta nabaritu dut. Zergatik baztertu zenuten atal hori? Gustura irakurtzen nuen. Hori ibai, kritikatu behar dizuet emakume gutxi agertu izana, euskararen aldeko borrokan funtsezkoak izan baitira. Irakurritakoen artean, Sagrario Aleman gogoratzen dut, bizitza-ibilbide oso interesgarria izan baitu. Ziur nago beste emakume askoren biografiak erakuts diezazkigukezuela!



PRISCILA

Nire ustez, Mantible aldizkariaren atalik interesgarriena elkarrizketena da. Bertan gure inguruko pertsonen hainbat gairi buruzko iritziak aurki ditzakegu. Horrela, gure eskualdeko bizilagunak hobeto ezagutu ahal ditugu, eta hitz egiten ari diren gaiei buruz ikasi. Gainera, haien esperientziak kontatu ondoren, persona horiek beste era batera ezagutzeko aukera ematen digu aldizkariak.

En mi opinión, el apartado más interesante de la revista Mantible es el de las entrevistas. En él podemos encontrar opiniones de personas de nuestro entorno sobre diferentes temas. Así podemos conocer mejor a los vecinos de nuestra comarca y aprender sobre los temas que se tratan. Además, después de contar sus experiencias, la revista nos permite conocer a estas personas de otra manera.



SILVIA

Mantiblen gehien gustatzen zaidan atala *Euskarak lagun* da, gure eskualdeko jendeak hainbat gairi buruz hitz egiten baitu. Oso ondo dago eta oso interesgarria da. Baina *Zuek ere euskaraz* atala ere asko gustatzen zait; euskara ikasteko motibatzen gaitu, eta lagundu ere egiten digu. Beti agertzen dira ariketa txikiak guk egiteko, batzuk zailagoak, beste batzuk errazagoak, baina oso entretenigarriak.

La sección que más me gusta de Mantible es *Euskarak lagun*, ya que la gente de nuestra comarca habla de diferentes temas. Está muy bien y es muy interesante. Pero también me gusta mucho la sección *Zuek ere euskaraz*; nos ayuda y nos motiva para aprender euskera. Siempre aparecen pequeños ejercicios, algunos más difíciles, otros más fáciles, pero son entretenidos.



TESTUAK: Arabako Errioxako IKA

ARGAZKIAK: Arabako Errioxako IKA.

ILUSTRAZIOAK: "Zuek ere euskaraz" Abraham Pérez Pérez (ISFTIC).

Mantible aldizkariaren gainontzeko aleak eskuragarri dituzue gure web orrian tresnak izeneko atalean.

En nuestra página web podéis ver los números anteriores de Mantible, en el apartado de herramientas.

Oiongo IKA euskaltegia. Diputazio kalea, 32. 01320 Oion. 945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia. Berberana zeharkalea, 5. 01300 Biasteri. 945 621 055

<http://errioxa.ikauskaltegiak.eus>

errioxa@ikauskaltegiak.eus



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

2009an hasi ginen Mantible aldizkariaren egitasmoarekin; aspaldi, alajaina! Mantible aldizkariaren lehen atala izan zen orduantxe, 2009ko uztailean, hain zuzen, eta, dagoeneko 38 ale burutu ditugu; eskutartean duzuen hauxe, azkena. Ale guztietan ikasgaitxoak jarri ohi genuen. Ale haren ikasgaia duzue oraingoan agur gisa helarazi nahi dizueguna. Ongi izan eta laster arte!

En 2009 comenzamos con el proyecto Mantible, en julio de aquel año, precisamente. Desde entonces hemos publicado 38 ejemplares; este que tienes entre manos será el último. Como sabéis en todos los números solíamos agregar una pequeña lección. La que tenéis a continuación es la primera de aquel ejemplar de 2009. Os la mostramos de nuevo a modo de despedida. ¡Que sigáis bien y hasta pronto!

Zubiak oso eraikuntza garrantzitsuak izan dira historian zehar. Lotzeko eraikuntzak, harremanetarako eraikuntzak. Aldizkari honek ere lotzeko funtzioa bete du azken hamarkadan: Euskaltegia eta Arabako Errioxako herritarrok harremanetan jartzekoa, euskara eta euskal kultura zuen etxeetara helaraztekoa, hain zuzen ere. Baina Mantible zubia duela hilabete batzuk erori zen bezala, aldizkari honi ere amaiera iritsi zaio. Hala ere, ez da betiko agurra, bide berriak izango baititugu harremanetan jarraitzeko. Beraz, gero arte!
Gogoan izan Euskaltegiko webguneko BILTEGIAN, "tresnak" atalean aldizkari ale guztiak eskuragarri dituzuela.

Los puentes han sido construcciones muy importantes a lo largo de la historia. Construcciones que unen, construcciones que nos relacionan. Esta revista, en la última década, también ha cumplido la función de unir. De hecho, ha puesto en contacto al Euskaltegi con la gente de la comarca, ha intentado hacer llegar el euskera y nuestra cultura a vuestras casas. Pero así como el puente Mantible cayó hace unos meses, a esta revista también le ha llegado el final. Aunque no es una despedida definitiva, ya que tendremos nuevos puentes para seguir en contacto. ¡Así que hasta luego!
Recordad que en el apartado BILTEGIA "herramientas" de la web del Euskaltegi podéis encontrar todos los ejemplares de la revista.

zuek ere euskaraz.....

■ Aquí encontrarás conversaciones sencillas que se nos plantean todos los días, bien con los/as amigos/as, la familia, comprando en la tienda, tomando algo en un bar... Iremos proponiéndote distintas situaciones periódicamente, para que vayas aprendiendo fácilmente y comprobar que el euskera no es tan difícil como creías. También encontrarás un pequeño diccionario. Empezaremos con los saludos más habituales y frases de cortesía.

Euskaldunok ere badugu zeregina, izan ere, inguruan ditugun erdaldunak animatu behar ditugu esaldiak ikasi eta praktikan jar ditzaten. Gainera errazak izan arren ahoskera eta entonazioan laguntza beharko dute.



EN LA CALLE I / KALEAN I

- Egun on, Amaia! (Buenos días, Amaia!)
- Baita zeuri ere (Igualmente)

EN LA CALLE II / KALEAN II

- Arratsalde on, Leire! (Buenas tardes, Leire!)
- Baita zuri ere! Zer zabilta? (Igualmente! ¿Qué haces?)
- Hementxe erosketak egiten/paseoan/poteoan... (Aquí, haciendo la compra/ paseando/ de poteo).

EN LA CALLE III / KALEAN III

- Aitor, zer moduz? Aspaldiko! (Aitor, ¿Qué tal? ¡Cuánto tiempo!)
- Ni ondo eta zu? (Yo bien ¿y tú?)
- Ni ere ondo (Yo también)
- Zer moduz familia? (¿Qué tal la familia?)
- Denak ondo (Todos bien)

AGURRAK ETA KORTESIAZKO ESALDIK / SALUDOS Y FRASES DE CORTESIA

Kaixo / Hola
Agur/ Adiós
Egun on / Buenos días
Arratsalde on / Buenas tardes
Gabon / Buenas noches
Baita zuri ere / Igualmente
Gero arte / Hasta luego
Bihar arte / Hasta mañana
Ikusi arte / Hasta la vista
Ongi ibili / Que te vaya bien
Ondo pasa / Que te lo pases bien



Ondo lo egin / Que duermas bien
Barkatu / Perdón
Mesedez / Por favor
Eskerrik asko / Gracias
Ez horregatik / De nada
Aspaldiko! / ¡Cuánto tiempo!
Zer moduz? / ¿Qué tal?
Zelan? / ¿Qué tal?
Zer zabilta? / ¿Qué andas?
Ondo esan beharko! / ¡Tirando!
Hainbestean! / ¡Tirando!